

ESTRATEGIA SOZIALISTA BERRIA.

KOMUNISMOAREN BERROSAKETA

INTERNAZIONALERAKO OINARRI

ESTRATEGIKOAK.



EUSKAL
HERRIKO
KONTSEILU
SOZIALISTA

1. Koiuntura historikoa: kapitalismoaren egiturazko krisia

Egungo koiuntura historikoa gizarte kapitalistaren egiturazko krisiak determinatuta dago, izaera historikoa duen krisiak. Krisi horren fundamentua da lanak ekoizpen sozialaren egituran zuen zentraltasuna galdu duela. Prozesu hori, gutxienez duela mende erdi abiatu zena, orain modu azeleratuan gertatzen ari da. Lana teknologiak desplazatu du, batez ere mikroelektronikak, digitalizazioak, adimen artifizialak eta robotizazioak ekoizpenari ekarri dioten aldaketa historikoa dela eta. Lanaren aldean teknologiak duen nagusitasunaren eraginez, lan pribatua zaharkitua ari da geratzen ekoizpen (eta distribuzio) soziala antolatzeke forma historiko gisa.

Lanak ekoizpenean zentraltasuna galtzearekin bat, eta bereziki teknologia berriek beren indar produktiboa automatikoki handitzeko duten gaitasuna dela-eta, lan biziaren esplotazioan oinarritutako klase-gizarte osoa nahasi egin da. Testuinguru horretan, krisi historikoak honakoak eragin ditu: krisi ekonomiko errepikakorra, irabazi-tasa global errearen geldialdia eta hurrengo hamarkadetarako hazkunde-perspektibaren apaltzea, ordena sozial burgesa mantentzeko beharrezkoa baino txikiagoa dena. Masa-kontsumoko ekoizpen-ziklo posfordistak aipatu prozesu historikoa atzeratu bazuen ere, krisia, bere forma ekonomiko eta finantzariaon, larriagotuta ageri da egun.

Testuinguru horretan, erlazio sozial kapitalisten krisi historikoak, krisi ekonomikoaren azaleko forman, Kapital-fakzio handien arteko gerra ekarri du beren irabaziei eusteko; eta, bereziki, Kapital globalaren klase-ofentsiba langile populazioaren aurka, soldata modalitate guztiak arpilatzearen eta aurreko ziklo iraultzaileak konkistatutako eskubide zibil eta politikoak suntsitzearen bidez.

Zentzu horretan, kapitalismoaren biraketa autoritarioa gertatzen ari da maila globalean. Hori agerian geratzen da, batez ere, estatu-ereduaren erreforman, zeina izaera autoritarioko liberalismorantz egiten ari den, itxura demokratiko oro kenduta eta

proletarioen eskubide formal oro ezabatuta. Horrez gain, baina, klase gizartearen biraketa autoritarioak alde ideologiko-kultural bat du: faxismo sozial eta politikoaren forma berri baten gorakada. Hau da, deskonposizio bidean dauden erdi mailako klase nazionalen masa-ideologia ultranazionalista, erreakzionario eta antiproletarioaren itzulera, eta berezkoak zaizkien logika kultural autoritarioena. Fenomeno sozial eta kultural horrekin batera, izaera faxista duten masa-alderdi berriak sortu dira eta kaleko kolektibo biolentoak orokortu. Kolektibo horiek zigorgabetasuna dute proletarioen aurkako indarkeria erabiltzeko; izan ere, indarkeria hori burgesiaren interesekin bat dator. Nolanahi ere, kapitalaren dinamika autoritarioa, zeinaren adierazpen nagusia estatuaren erreforma baita, burgesiaren alderdi osoak gauzatzen du, hau da, baita bere ezker hegala ere.

Estatuaren erreforma autoritario horren elementu nagusiak honakoak dira: proletarioen eskubide politikoak ezabatzea lege-erasoaldi baten bidez, arlo sozialeko zigor-kodea gogortzea, militantzia proletario oro sistematikoki epaitzea, proletario migratzaileen aurkako salbuespen-egoera iraunkorrek aplikatzea boterearen erdigune globalean, kontroleko eta interbentziozko polizia-teknologiak areagotzea eta estatuak militarizatzea.

Azkenik, egungo ekoizpen-ziklotik eratorritako garrantzi handiko beste bi fenomeno azpimarratu beharra dago. Lehenik eta behin, mundu mailako potentzia ekonomiko nagusien arteko gerren gorakada, delegazio bidezko gerren ugaritzea eta handiki inperialistek geroz eta modu agerikoagoan antolatutako proletarioen sarraskiak (horiek guztiek, beren negozio globalen interesak konpetentziaren aurrean defendatzeko aukera emateaz gain, proletario soberakina deuseztatzeko bide gisa balio diete, gainera). Bigarrenik, krisi klimatikoa eta ekosistemen suntsiketa globala, zeina lotuta baitago baliabide eta lehengaien (meatzeak eta erregai fosilak) parte handi baten agortzearekin. Kapitalismoak, dinamika soziala antolatzeke forma gisa bere arrazionaltasun historikoaren mugara iritsi ondoren, indar produktiboak indar suntsitzaile eta basati bihurtzen ditu, eta horren adibiderik argienak dira gerra global etengabea, ekosistemen suntsiketa globala eta hurrengo belaunaldientzako baliabideen deuseztapena.

Nazioarteko basakeria horren aurrean, programa komunista eguneratzea, mugimendu



komunistaren puskak bateratzea eta alderdi komunista berriak eta handiak artikulatzea, proletalgoarentzat, klase unibertsala den aldetik, premia objektiboa da, eta baita giza espeziearena berarena ere bere biziraupenerako. Klase ofentsibak norantza aldatu behar du, eta subjektu proletario iraultzaile, antolatu eta kontziente berri baten ofentsiba internazional bihurtu, zibilizazio burges zaharraren hondarrak garbituko dituen eta garatutako indar teknologiko eta produktiboak klaserik gabeko eta askatasun politiko unibertsaleko zibilizazio-eredu berri batera altxatuko dituen.

2. Ziklo aldaketa eta borroka-ziklo iraultzaileak: masa alderdi komunista berrien nazioarteko bateratzea eta artikulazioa

Estrategia berria kapitalismoaren historiaren eta, bereziki, aurreko ziklo iraultzaileen irakurketa batetik abiatuta egituratu behar da, gertakariei justiziaz helduko diena, epai moralak alde batera utzita.

Bi ziklo iraultzaile bereizten ditugu proletalgoaren historia politikoan:

Lehen zikloa gerra napoleonikoetatik Parisko Komunara artekoa, proletalgoaren alderdi iraultzailea osatu gabe egoteak ezaugarritu zuen, estatu burgesari eredu gisa kontrajartzeko moduko forma politiko baten gabeziak (Komunak inauguratutako eredu), eta, bereziki, burgesiaren izaera iraultzaileak, oraindik zibilizazio tradizionalaren eta klase lurjabe eta estamentalen hondarrak desagerrarazteko zeregina baitzuen. Bada, ziklo horretan zehar, Lehenengo Internazionala gorabehera, proletalgo iraultzaileak ez zuen alderdi iraultzaile handirik, ez eta burgesia nazionalengandik bereizitako estrategiarik ere; eta, ondorioz, burgesiaren klase-laguntzaile izateko joera zuen. Hala ere, beharrezkoa da ulertzea proletalgo iraultzaileak izaera politiko progresiboa duela eta borrokaren bidez bigarren ziklo iraultzailerako oinarri politiko, sozial eta ekonomikoak konkistatu zituela.

Bigarren ziklo iraultzaileak Bigarren eta Hirugarren Internazionalen aldia barne hartzen du. Aldi horretan, proletariotza izan zen,

sintesi globalean zeuden herrialde askotan, klase historikoki aurrerakoi bakarra. Burgesia, aldiz, mundu-mailako klase dominantea zen, eta bere eredu hegemonikoa zen ordurako, herrialdekako garapen-maila desberdinarekin. Ziklo horren ezaugarri nagusia herrialde askoren industrializazio masiboa izan zen, eta burgesiak industria handia egituratzeko gaitasuna izan zuen estatuetan garatu zen batik bat, alderdi proletario handien forman. Alderdi horien barnean bi joera zeuden: erreformista-ekonomizista eta politiko-iraultzailea.

Boltexbismoarekin, bigarren ziklo iraultzaileak proletalgoaren guztizko independentzia estrategikoa eta organizatiboa ekarri zituen, bai eta alderdi komunistaren kontzeptu osatua ere. Horrez gain, garrantzitsua da azpimarratzea ziklo horretako klase-borrokaren konkista esanguratsuak (soldata-igoera globalak, gizarte-segurantza, zortzi orduko lanaldia, sufragio unibertsalerako eskubidea eta askatasun politikoak) ez zirela erreformismo ekonomikoaren lorpenak izan, klase-borroka iraultzaileenak baizik: batetik, Bigarren Internazionalen hegal iraultzaile bat egoteak zekarren mehatxua hegal erreformistari eginiko kontzesioen bidez baretu beharra zegoen; eta, bestetik, eta batez ere, Iraultza Sobietarrak eta ondorengo iraultza sozialistek burgesia internazionalari bere pribilegioak galtzeko beldurra eragin zioten, eta herrialde bakoitzeko destakamentu proletarioen aldeko kontsezio-politiketan sartzerara behartu. Hobekuntza ekonomiko eta sozialak erreformismoaren ondorio direlako tesi historikoa erabat faltsua eta interesatua da, eta guztiz antzua proletarioen eskubideen aurkako egungo erasoaldiaren aurrean. Erreformismoak ez du bere kabuz ezer sortzen hobekuntza korporatiboak besterik, baina inola ere ez hobekuntza kolektiborik edo eskubide unibertsalik.

Baina bigarren ziklo iraultzaile horretan, zeina proletalgoaren heltze-prozesu historikoko katebegi moduan ulertu behar baita, iraultza sozialistak ez ziren iritsi, beren ezein aldaeratan, maila altuagoko zibilizazio bat osatzera, ezta kapitalismoaren forma ekonomikoa gainditzera ere. Horren funtsezko arrazoia ekoizpen-indar sozialen heldutasun falta izan zen, non lan biziak paper zentrala jokatzen baitzuen oraindik, eta produktibitate sozialaren garapenaren fundamentua baitzen (bai fordismoan eta baita toyotismoan ere, esaterako). Hala, lanaren forma pribatuak eta balioaren legearen bidezko ekoizpenaren antolaketak ez zuten, artean,



beren baliozkotasun historikoa agortu. Baldintza historiko horren ondorioz, boterea hartutakoan, estatua eta dinamika ekonomikoa bera (artean molde kapitalistakoak, ezinbestean) izan ziren nazioarteko mugimendu komunista osoa asimilatu eta bere alderdi forma deuseztatu zutenak. Edozein kasutan, ez da epai historiko zuzena pentsatzea aurreko zikloko iraultza sozialistek porrot egin zutenik, ezta hurrik eman ere. Hain justu, iraultza haiek izan ziren gagozkion prozesu historikoaren oinarri kultural, ekonomiko eta politikoak jarri zituztenak, zeinen faltan gaur egun proletalgoa politikoki erabat suntsituta egongo zatekeen, eta bere kontzientzia historikoa guztiz desagertuta.

Gaur egun, agortutako ziklo horren hondarrean, lan biziaren zentraltasun galera dela-eta kapitalismoak bere muga historikoa jo duenean, proletalgo masibo berri batek eskura ditu baldintza materialak sozialismoaren eraikitze-prozesu historikoa burutzeko, honako oinarriekin: askatasun politiko unibertsala, zapalkuntza- eta egiturazko biolentzia-formen deusezte, aberastasun sozialerako sarbide unibertsala eta aisialdirako denboraren areagotze esponenziala.

2.1. Alderdi komunistaren kontzeptua

Alderdi komunistaren kontzeptua proletalgoaren forma politiko bukatuaren espresioa da, burgesiaren alderdiarekiko independentea den aldetik, politikoki eta historikoki. Beste modu batera esanda, programa politiko komunistaren hezuramitze politiko eta organizatiboa da. Boltxebismoa da alderdi marxista iraultzailearen eraikuntza-prozesu kontzeptualean maila historikogorena. Hala ere, kontzeptuaz haratago, boltxebismoaren alderdi-eredua, zeina oso baldintza historiko espezifikotara egokitutakoa baita, hankamotz gelditzen da alderdi komunistaren egungo artikulaziorako, eta are hankamotzago proletalgo berriarengan alderdi hegemoniko gisa hedatzeko. Zentzu horretan, behar-beharrezkoa da antolaketa-ereduan eta, bereziki, borroka ideologiko-kulturalerako taktikan aldaketak egitea. Estrategia sozialista berria, beraz, boltxebismoaren alderdiaren paradigmapean egituratu behar da, baina ohiko marxismo-leninismoaren eskematismo taktiko eta organizatibotik kanpo, ahistorikoa eta antzua baita.

Marxismo-boltxebismoaren alderdiaren kontzeptuak ezaugarri nagusi hauek ditu: kontzientzia sozialistaren zentraltasuna proletalgo iraultzailearen eduki politiko eta historiko gisa, zeina teoria iraultzailearen produktu etengabea baita, eta teoria iraultzailea, berriz, prozesuaren ardatza; proletalgoaren independentzia politikoa alderdi ekonomizisten eta oportunisten bertsio guztien aurka (programa burgesarekin bat datozen alderdiak), hau da, programa-independentzia erreformaren alderdiarekiko, zeinak estatu kapitalistaren bitartez ekiten baitu, bai aldaera sindikalista-ekonomikoan, bai parlamentarioan; ulerkera estrategiko hegemonista eta masazkoa, kolpismo eta intsurrekzionalismo sektrario guztien kontra; zentralismo demokratikoa alderdi-antolaketa eredu moduan; internazionalismo proletarioa botere berriaren marko estrategiko eta territorial gisa; eta komuna-estatuaren eredia proletalgoaren diktadura iraultzailerako eredu moduan. Jarraian, elementu guztiak banaka azalduko ditugu.

Kontzientzia sozialista sistema kapitalistaren eta koiuntura konkretuaren ezagutza objektiboa da, forma orokorrean. Horrela, kontzientzia sozialista da ezagutza politiko horren forma simple eta unitarioena, eta proletalgoaren kultur nukleoa osatzen du beraz klase independente eta iraultzaile bihurtzen denean. Ildo horretan, alderdi komunista da masen kontzientzia sozialistaren forma organizatiboa. Horrexegatik da estrategikoki garrantzitsua kontzientzia sozialista hedatzea eta sozialismoaren ikuspegitik gatazka bakoitzaren klase-dimentsioa azaltzea.

Kontzientzia sozialista, proletalgo iraultzailearen ezagutza politiko modura ulertuta, teoria iraultzailearen emaitza da. Teoria iraultzaile marxistak, alde batetik, ekonomia politikoaren kritika eta historiaren ulerkera materialista ditu osagai eta, beraz, kapitalismoaren kontzeptu historiko osatua ematen du. Bestalde, teoria iraultzaile marxista bukatu gabeko kategoria-aparatu politiko eta historiko batek osatzen du, zeinak sintetizatzen baititu eztabaiden, borroka-moduen eta taktika- eta antolaketa-ereduen aurrerapausoak, bai klase-borroko aurreko zikloenak, bai garapen betean dagoen egungo zikloarenak. Horiek horrela, teoria iraultzaileak kapitalismoaren perspektiba historikorako oinarriak ematen dizkigu, baita mundu-ikuskerak sozialista antagonikoaren fundamentuak ere. Mundu-ikuskerak hori garapen historiko betean



dago, eta gu bere parte gara. Teoria iraultzailea ariketa organizatibo kolektiboa eta etengabea da, eta arestian aipatutako bi funtsezko osagaietatik eratortzen da kontzientzia sozialista, kontzientzia faltsu burgesarekin kontrajarrita. Kontzientzia sozialista alderdi iraultzailearen oinarri kontzeptuala da, eta honako hauek egiten ditu posible:

1. Koiuntura berriko irakurketa bakoitza egokitzea kolpatu behar den osotasun historiko kapitalistari.
2. Koiuntura taktiko eta borroka oro lotzea estrategia iraultzaileari.
3. Proletalgoaren orokortutako ulermen-eta ekintza-irizpideak existitzea, prozesu iraultzailerako testuinguru aproposa eragiten dutenak eta prozesua bera kuadro politikoz hornitzen dutenak.

Horren harira, mundu-ikuskeraren burgesaren aurrean, proletalgoaren kontzientzia historikoa formazio sozial burgesaren historikotasunaren kontzientzia da, gizarte kapitalistaren forma naturalizatu eta ideologiko guztiak agerian uzten dituen; soldatapeko lana, merkantzia, kapitala... baita parlamentuea, judikatura edo polizia ere. Sozialismoa, beraz, antagonismo historikoa da kontzientziaren forman ere. Aipatutako forma naturalizatu eta ideologiko horien guztien izaera kapitalista bistakoa zaio proletalgo iraultzailearen kontzientziari, eta, beraz, prozesu iraultzailearen bidez abolitu beharreko erlazio gisa ageri zaizkio. Erreformisten kontzientzia burgesak, aldiz, kapitalismoaren forma sozial eta historiko horiek guztiak betierekotzat eta naturalizat jotzen ditu; erreformaren alderdiaren ekintza-marko politikoa, beraz, klase-egitura historiko horren mugen barruan giltzapetua dago, hura gainditzeko inolako asmorik gabe.

Proletalgoaren independentzia politikoa kontzientzia sozialistaren (edo mundu-ikuskeraren sozialistaren) adierazpen garatua da plano organizatibo eta kulturalen. Independentzia politikoa alderdi komunistarekin baino ezin da lortu, ofentsibaroko klase iraultzaile gisa jardutean soilik baita proletalgoa egiaz independente, hots, iraultza-prozesuan; eta hori posible da soilik proletalgo iraultzaileak masa-indarra duenean eta erasoaldia nazioarteko mailan egin dezakeenean. Esan nahi baita: independentzia hori erabatekoa da soilik komunismoa eta

mundu-ikuskeraren sozialista proletalgoaren hegemonikoak direnean eta proletalgoaren parte handi bat ofentsibaroko alderdi bateratuaren parte denean. Aldiz, independentzia politikoa helburu estrategiko gisa (alderdi komunistaren berrosatua, helburu estrategiko gisa), funtsezko irizpidea da belaunaldi-haustura proletarioa gerta dadin agortze bidean den ziklo erreformistarekiko, zatiketa boltxebikearen garaian jazo zen bezalaxe.

Alderdiaren ulerkera hegemonista ere boltxebismoaren alderdi-kontzeptuaren kategoria funtsezkoa da; bakunismoaren eta gutxiengo konspiratiboaren intsurrekzionalismo kolpista orori kontrajarrita, marxismoaren arabera, proletalgoaren klase-askapenak proletalgo iraultzailearen beraren egintza izan behar du. Halako moldez, non alderdiak proletalgoaren gehiengoaren borondate historiko konkretua ordezkatu behar duen; soilik momentu horretan da benetan ofentsibaroko alderdi marxista iraultzailea. Hortaz, hegemoniaren auziak berebiziko garrantzia du marxismoarentzat. Hegemonia modu honetan ulertuta: borroka kulturalaren bidezko indar-metaketa prozesu gisa eta, ondorioz, masa proletarioen artean kontzientzia sozialista orokortzeko prozesu gisa.

Bestalde, zentralismo demokratikoa da proletalgo iraultzailearen antolaketa-forma garatuena, eta aurreko ziklo iraultzailean eraginkorragoa izan da bestelako formazio organizatiboak baino. Zentralismo demokratikoa ez da militante lokalek zuzendaritza gainbegiratzeko prozedura hutsa. Batez ere, burgesiaren forma demokratikoa gainditzeko mekanismoa da, oinarritzat baititu teorikoki formatzeko militanteen betebeharrak eta parte-hartze kualitatiboa. Oinarri horiek antolakundea hobetzen laguntzen dute eta, bereziki, antolakundetik baztertzen laguntzen dute erreformaren alderdiak berau asimilatzeke izan ditzakeen joerak.

Baina zentralismoa, boltxebismoan, alderdi osoaren zuzendaritza zentralizatua baino askoz gehiago da: ororen gainetik, alderdia proletalgo iraultzailearen antolakunde guztien batasun gisa kontzebitzea da, antolakunde horien guztien agente estrategiko zentralizatu gisa eta, era berean, borroka-fronte guztiena eta proletalgoaren sektore guztiena. Zentralizazioa, baina, ez soilik strategiarena, baizik eta, batez ere, taktika orokor bateratuarena. Bada, alderdi komunistaren antolakunde iraultzaileen



batasun zentralizatua da, eta antolakundeak eratzeko eginkizuna du beharrezko eskuhartze esparruetara iristeko. Horretarako, lan militantearen banaketa koiunturaren arabera garatu eta egokitu beharra du. Antolakunde iraultzaileak proletalgoaren instituzio independenteen baliokide moduan uler daitezke.

Marxismoarentzat Alderdi Komunista proletalgoaren alderdi internazionala da, hizkuntza-, kultura- eta etnia-desberdintasunen gainetik, proletalgoa baita klase politiko gisa egiazko klase internazional/unibertsal bakarra. Langile-internazionalak eta internazional komunista, beraz, alderdiaren benetako kontzeptzio marxistaren adierazpenak dira, alderdi internazional moduan. Boltxebismoaren ikuspegitik, ez du zentzurik alderdi komunista nazionalz hitz egiteak, eta tokiko alderdi komunista oro nazioarteko alderdi komunistaren lurralde-delegazio moduan ulertu behar da.

Dena den, internazionalaren azpibanaketa osatzen duten delegazio horiek, "estatu" mailakoak izan behar dute marxismoaren arabera, baina "estatu" ulertuta oligarkiak esku hartzeko mekanismo politiko eta ekonomiko nagusiak antolatzen dituen botere-eskala gisa; esaterako: politika monetarioa, finantzak, politika fiskala, azpiegitura-politika, lanaren adar estrategikoen lurralde- eta sektore-antolamendua edota indar militar bateratua. Hori dela-eta, Internazional Komunistako kide ziren alderdiak estatu-mailan antolatzen ziren eta, kontzeptu berberari jarraituz, gaur egun beharrezkoa da nazionarteko alderdi komunista banatzea burgesiaren mundu-ordena berri eta gatatzatasua osatzen duten supraestatuetan.

Azkenik, marxismo-boltxebismoarentzat, ofentsibaren bidez burgesiaren estatu-aparatua suntsitzea da helburua (herri langiletik banatuta dauden ejerzituaren, poliziaren eta judikaturaren makinaria burokratiko-militarra suntsitzea; estatu burgesak parlamentuan, gobernuan edo alderdi instituzionaletan dituen botere-instituzioak desegitea; eta estatu-aparatu tekniko eta finantza-aparatua oso-osorik desjabetzea), eta, aldi berean, trantsiziozko estatu proletario bat eraikitzea, gehiengo proletarioaren diktadura demokratikoa gauzatuko duena, komuna-estatuaren eredupean (herri-milizia orokorra, edozein unetan kargugabetu daitezkeen eta langile-soldata arrunta duten ardura-postuak,

ekoizpen-adar estrategikoen sozializazioa eta plangintza zentralizatua). Berebiziko garrantzia du boltxebismoak komuna-estatuari buruz duen ulerkera estrategikoaren egitura kontzeptualak, hain justu proletalgoaren destakamentu politikoak estatu burgesaren baitan (burgesiaren botere-forman) asimilatzeko saiakerai aurre egiteko. Burgesiaren botere politikoa suntsitu beharra dago. Ez dago komunismo zantzurik estatu burgesaren neutraltasuna defendatzen dutenen artean, ezta langile-klaseen interesak dinamika instituzionaletara bideratzeko beharra babesten dutenen artean ere.

Hala ere, komuna-estatu eguneratu egin behar da, eta estatuaren teoria marxista garatu, komuna-estatuaren esanahi eguneratua jasoko duen programa argi baten bidez. Azkenik, horren harira, garrantzitsua da azpimarratzea, ekoizpen-indarren garapen-maila dela-eta, komuna-estatuak gizarte-antolaketa ekonomikoki hobe eta demokratikoago gisa duen potentzialtasuna.

2.2. Alderdi komunistaren eredu eguneratua

Estrategia berriak proposatzen duen alderdi komunistaren eredu eguneratuak honako elementu zentralak ditu: kontseilu sozialisten egitura bikoitza, ekoizpenean eta distribuzioan; boterearen ulerkera sozial eta historikoa eta alderdi komunista botere-organoz osatutako langile kolektibo gisa; fragmentazioaren eta ideologia burgesaren aurka, izaera sozialistako fronte-antolakunde trantsitorioen eraketa, proletalgo iraultzailea berrosatzeko. Azkenik, bi auzi osagarri: taktika kultural berri bat Alderdi Komunistaren eraikitze-faserako eta alderdiaren lurralde-eskalaren eguneraketa.

Ereduaren eguneratzea osatzen dute bigarren mailako beste auzi batzuek ere, baina ez dira dokumentu politiko honetan jorratuko.

Dokumentu honetako hirugarren eranskinean "prozesu sozialista" deritzogun estrategia berriaren periodizazioaren azalpen laburra dator.

I. Ekoizpena eta distribuzioa: Kontseilu sozialisten egitura bikoitz zentralizatua



Langilearen eta langabearen arteko identitate-bereizketa (eta euren arteko lehia zuzena) estrategikoa da burgesiarentzat; proletalgoarentzat, berriz, zoritxarreko ahulgunea da, agente historiko modura. Bereizketa horren oinarrian proletalgoaren beraren bereizketa erreala dago, batetik kontsumitzailea eta bestetik ekoizlea den aldetik.

Gainera, horrekin loturan, gizarte burgesaren beraren bereizketa ere badago, burgesiak bere erabakimen- eta aginte-egitura antolatu duen moduagatik: ekoizpenekoa, alde batetik, banaketakoa eta kontsumokoa, bestetik. Ekoizpena eta banaketa gobernatzeko botere burgesaren apartatu bereiziaz daudenez (ekoizpenaren kasuan, organismo politiko supraestatalak, finantzen zuzendaritza-organoak eta multinazional handiak; distribuzioarenean, estatua eta logistikako zenbait enpresa estrategiko, bai eta elikagaien, energiaren, eta abarren komertzializaziorako beste zenbait), beharrezkoa da alderdiak egitura bikoitza izatea. Hala, egitura bikoitz horrek estrategia garatzea ahalbidetuko du, bai proletalgo iraultzailearentzat, bai alderdi komunistarentzat, kontrola hartzeko prozesu bikoitza abian jarritz: ekoizpen sozialarena, batetik, eta distribuzio-mekanismoena eta kontsumo-funtsarena, bestetik.

Gizarte burgesaren bi dimentsioak kontrolatzeko estrategia-ildo zehatzik ezean, ezinezkoa da prozesu sozialaren kontrola hartuko duen estatu sozialista baten aukera mahaigaineratzea; dinamika ekonomiko burgesak azpiratuko du, bestela. Bi fronte horietan baldintza politikoen eraikuntza-prozesua jazo denean soilik ebatzi ahal izango da boterea hartzearen auzia, eta ez lehenago. Hau da, proletalgoa, bere garapen politikoaren, organizatiboaren eta historikoaren maila dela-eta, gai denean gizarte burgeseko bi esfera handietako boterea hartu eta eredu historiko berri baten pean bateratzeko.

Alderdi Komunistak bizitza sozialeko bi plano horietan borroka estrategikoa egin dezan, kontseilu sozialistak bitan banatu behar dira: alde batetik, ekoizpen-sektoreka, ekoizpena kontrolatzeko eta ekoizpen-aparatuan egiten diren borrokak zuzentzeko; eta, bestetik, lurraldeka, distribuzioaren kontrol demokratikoa eskuratzeko eta soldata-borrokak zuzentzeko. Izan ere, kontseilu sozialistak dira adarkako zuzendaritza politikoaren erakusle nagusiak.

Ekoizpena kontrolatzeko taktikak hiru borroka-ardatz izango ditu:

1. Demokrazia proletarioa progresiboki eraikitzea ekoizpen-adar bakoitzeko lan-prozesuaren barruan.
2. Lana eta bere produktua progresiboki eraldatzea, forma kapitalistatik (botere burgesarena) forma sozialistara (botere proletarioarena). Ekoizpen osoaren forma-erlaldaketa, alegia: lan-adar bakoitzeko produktua eraldatzea proletalgo iraultzailearen eta estrategia sozialistaren klase-interesaren arabera, enpresa-irabazien interesen edota klase burges osoaren interesen aurka. Hala, proposamena, utopismo orotik urrun, honakoa da: klase-borrokaren bidez ekoizpen-prozesuaren gaineko kontrol-kuota areagotzea, hura progresiboki estrategia sozialistari baliagarri gerta dakion, zentzu ekonomikoan.
3. Azkenik, lan-baldintzen aldeko borrokak, gremio bakoitzeko baldintzak berdintzeko eta lan-prozesuen kalitatea (langilearentzat berarentzat) hobetzeko.

Borrokaren hiru ardatzek, unitate estrategiko gisa, dagozkien borroka-ildoak honako puntuari jarraituz zuzentzeko beharra dute: ekoizpenaren gaineko kontrol burgesa murriztea eta borrokaren bidez kontrol proletarioa handitzea. Ez da posible estrategia sozialistarik, Alderdi Komunista ez badago ekoizpen-aparatu osoan egituratuta.

Distribuzioa kontrolatzeko taktikari edo "soldata-borrokei" dagokienez, apustu organizatiboa da soldata-modalitate guztietan (zuzenekoan, zeharkakoan eta diferituan) borroka egitea, autodefentsa sozialista izendatu dugun ereduaren bidez. Sindikalismo/erreforma parlamentarioaren praktika eta borroka ekonomiko korporatibo soilaren ordez, soldata-borroken helburu nagusia zera da: alderdian antolatutako proletarioek distribuzioa eta haren mekanismo sozialak politikoki kontrolatzearen aldeko propaganda estrategikoa egitea.

Garatzen ari den kontrol hori lurralde-kontseilu sozialisten inguruan antolatu behar da. Kontseilu horiek proletalgoaren alderdi-organoak dira, burgesiaren lurralde-egiturari kontrajarriak. Lurralde-egitura burges hori distribuzio-egitura bat da, eta, besteak beste,



honela banatuta dago: alde batetik, estatuko sare instituzionalean eta, bestetik, elikaduraren, energiaren, higiezinaren eta abarren distribuzio-multinazional handien multzoan. Hau da, arlo “publikoa” eta “pribatua”, eredu burgesaren barruan, ez dira langile-klasearen bizibaliabideen distribuzioa kontrolatzeko bi modu baizik. Hori dela-eta, gure eredia distribuzio-mekanismo horiek burgesiari desjabetzea da, proletalgoaren eta haren kontseiluen (estatu-zelula sozialistak) esku uzteko, distribuzio osoa bateratzeko eta logika sozialistaren arabera antolatzeko, irabaziaren eta soldataren logikatik kanpo.

Azkenik, kontsumoaren soldata-formak taktika gizartearen egungo forma horretara egokitzeko beharra dakar. Hau da: alde batetik, apustua da soldata-kuota orokorrak modu jarraituan gora egitea irabazi globalaren kaltean; edo, bestela esanda, irabazia progresiboki desjabetzea (soldata igotzeko eta doako zerbitzuak eta asistentzia lortzeko borroka partikularren bitartez gauzatuko da hori); bestetik, existentzia-baldintzen unibertsaltasunaren printzipioa (zeinak, gauzatuko bada, borroka zehatzak egitea baitakar, bai lan sozialaren gremio guztietan soldata berdintzeko, bai inperialismoak dakarren desberdintasun-oinarriaren aurka borrokatzeko, horrek hainbat naziotako proletarioentzat dakarren onurarekin).

Distribuzio sozialistarako (sozializatu eta emantzipatutako klase unibertsal baten kontrolpekoa) programa historiko berriaren helburua honakoa da: alde batetik, irabaziaren eta esplotazioaren legitimitatea deusezte eta, bestetik, langile-klasearen barruko desberdintasun sozialak eta meritokrazia apurtzea. Hori guztia borroka-prozesu gisa antolatuta proletalgo iraultzailearen lurralde-kontseilu sozialisten inguruan, zeinek, azkenean, botere erreal bat eratuko baitute etxebizitza, elikadura, gizarte- eta kultura-azpiegiturak, osasuna, hezkuntza, garraioa, energia eta beste administratuko dituen, dohainik eskuratzeko moduan eta sarbide unibertsalarekin.

II. Alderdi komunista langile kolektibo gisa

Boterearen problematikan bi izan dira langile-mugimenduan egon diren postura nagusiak: lehenaren arabera, boterea estatuan datza eta, ondorioz, hura hartzea da eginkizuna,

dela hura kudeatzeko (sozialdemokrazia), dela hura suntsitzeko eta beste estatu propio bat eraikitzeko (marxismoa); bigarrenak, izaera anarkista duenak, botere politikoa bera arbuatzen duen aldetik, ukatu egiten du estatuaren boterea, eta gizabanakoak eta komunitateak “ahalduntze” aldera berehala deuseztatu litekeen instituziotzat jotzen du. Tradizionalki sozialismo utopikoarekin eta bakuninismo mota batekin lotu den postura horren ikuspegitik, botere-hartzea ez da beharrezkoa.

Hala ere, bi ikuspuntuek dituzte arazo esanguratsuak. Lehenik eta behin, boterea estatutik haratago doan osotasun sozial bat delako, eta estatuaberresintesi bat baino ez. Beraz, batetik, norbanako edota konspirazio-kolektibo txiki batek ere ezin du botere kapitalistari aurre egiteko eta berau mende hartzeko gai den botere-sintesirik osatu; bestetik, estatuaren “kontrol-hartze” soilak ere ez du “matxinatuen” esku jartzen botere soziala. Hala eta guztiz ere, neurri batean, marxismoak asmatu egin du kontuan hartzean estatua dela botere-sintesi zabalenera eta zentralizatuenerako sarbidea eta, garrantzi txikiagokoa ez dena, gizartearen gaineko kontrol militarrekoa. Alabaina, ez gara gai izan boterea osotasun-terminotan kontzeptualizatzeko, batez ere ekoizpen burgesean erreproduzitzen eta hedatzen den osotasuna, prozesu ekonomiko sozialen eta finantzen kontrol teknikoan. Hala, boterearen ulerkera politizista eta estatalista izan ohi dugu.

Boterearen kontzeptu dialektikoa behar dugu, bai eta “botere-hartzearen” ulerkera estrategikoarena ere. Kontzeptu horrek osotasun sozial konfiguratu eta kontraesankor moduan ulertu behar du boterea, klase-borrokaren bitartez garapen betean dagoena. Beraz, estatu-boterea hartzea une bat baizik ez da (beharrezkoa eta kualitatiboa) botere sozialaren eraldaketa-prozesu globalean, botere sozialaren klase-forma kapitalistatik, forma sozialista eta unibertsalerako bidean. Alegia, letorkeen ziklo iraultzaile berrian, botere politikoa hartzea (supraestatu geostrategikoen markoan) klase-borrokaren azken (eta beharrezko) pausoetako bat da, botere berriaren azken eraikuntza-urratsetako bat.

Bigarren arazoa, lehenengoarekin zerikusia duena, zera da: boterea osotasunari lotutako “boteresozial” gisaez kontzeptualizatzean (zeina, azken finean, exekuzio praktikoan, gaitasun



teknikoa baita), leninismoak matxinada osterarte atzeratu du proletalgo irautzaileak bere gaitasun teknikoak izatea prozesu irautzailearen eta estrategia sozialistaren zerbitzura jartzeko, gaitasun teoriko, propagandistiko eta miitar gutxi batzuek harago. Horrela, bada, militantzia-eredua kuadro politiko profesionalaren ideia mugatu du soil-soilik, eta baztertu egin du era guztietako koadro teknikoek osatutako alderdiaren ideia. Horida, hain zuzen, alderdiaren eredu leninistaren eragozpen nagusietako bat. Eredu horrek, alde batetik, gizarte burgesa industrialki garatutako tokietan botere politikoa koskistatzea eragotzi du eta, bestetik, ekarri du, iraultza sozialista semiperiferikoetan, behin boterera iritsita alderdi komunistek gizarte berria kapitalismoaren oinarrien gainean eraiki behar izatea, besteak beste koiunturak behartuta; hain zuzen ere, konkistatutako eta desjabetutako lurak eta industria-bitartekoak txertatzeko moduko egitura tekniko antolaturik ez izateagatik.

Finean, masa-alderdi komunista berriak boterearen kontzepzio soziala izan behar du, osotasunari lotua, eta hori alderdiaren botere-organo teknikoetan islatu behar du organizatiboki, beharrezkoak diren gaitasun teknikoaren arabera dibertsifikazio-maila izan behar dutenak, strategiari fronte guztietan erantzuteko.

Botere-organoen exekuzio-gaitasunak diziplina militantea izan behar du oinarritzat, koadro politikoaren kasuan bezalaxe, eta soilik, modu osagarrian, koadro tekniko oso espezifikoaren soldatapeko liberazioa, betiere gutxieneko proportzioan. Izan ere, alderdia salarizazioaren mende egotea, alderdiaren lan-prozesuak kapitalarekiko menpeko bihurtzea da.

Alderdiaren botere-organo teknikoak alderdiaren zuzendaritza estrategikoaren mende daude une oro.

Horiek horrela, alderdi komunista, langile kolektibo kontziente gisa, ekonomia sozialista eraikitzeke plataforma da bere horretan, zeina soilik gara baitaiteke guztiz hegemonia politikoa eta estatu-forma lortu ondoren, eta ekoizpen-aparatu teknikoa osorik dejabetu eta sozializatutakoan. Modu horretan, alderdi komunistak, burgesiaren aginte-egitura politikoa desegiten dituen aldi berean, haren oinarrian dagoen ekoizpen-logika ordeztu du gizarte sozialistaren oinarri ekonomikoekin.

Alderdi komunistak, beraz, ikuspegi horretatik, prozesuan den plataforma ekonomiko sozialista izan behar du. Bada, ekoizpenaren sozializazioa (aurreko ziklo politikoan amaitu gabe geratu zen programa) gaur egun burgesiaren kontrolpean dagoen puntako aparatu teknikoaren eta plataforma ekonomiko sozialistaren arteko fusio bezala kontzeptualizatu behar dugu. Esan gabe doa, fusio hori posible izango dela soilik klase-etsaia garaitu eta azpiratutakoan. Estrategiaren ulkerak berri hori, konstruktibismo politiko deritzoguna, funtsezkoa da aurreko ziklo irautzaileko etapismo politikoaren muga historikoak gainditzeko. Edozein kasutan, muga horiek guztiak saihetsezinak izan ziren, eta beharrezkoak gure klasearen garapen historikorako.

Proletalgo irautzaile berriak, inoiz zibilizazio-oinarri berria izango bada, botere-organo teknikoaren hazkunde proportzionalaren ardura koletiboa hartu behar du bere gain, bai eta militante-eredu komunistaren dibertsifikazio teknikoarentzako forma organizatibo egokia garatzearena ere.

Diziplina militanteak izan behar du, alderdiaren forma demokratikoari lotuta, sozialismoaren etika ekonomiko berria. Etika ekonomiko berri horretan, lana bera, soldatapeko formatik eta menpeko izaeratik libre, askatasun politikoaren adierazpen pertsonala da, baita askatasun politikoaren beraren oinarri permanentea ere, horrek har dezakeen forma juridikoaz gaindi. Diziplina sozialista, beraz, eraikuntzan den botere berriaren funtsa da. Botere hori bere forma orokor eta askotarikoan ulertu beharra dago, baina ofentsiba estrategikoaren helburua eta estatuaren auzia inola ere ahaztu gabe.

III. Proletalgo irautzailea eragile unitario gisa berrosatzea.

Fronte-antolakunde trantsitorioen eraketa alderdiaren euskarri moduan

Gaur egun proletalgoa desegite politiko, kultural eta identitario egoeran dago, eta horrek eragin argia du identitate fragmentarioen politikan. Izan ere, identitate-politikek klase-subjektu proletarioa desegin dute, gizarte burgeseko klase-sistemaren zapalkuntza-modalitateetan oinarrituta. Zapalkuntza horietako asko, edo aurreko gizarte-formazioetatik eratorritakoak dira, edo taldeen arteko botere-erlazioetatik, botere-erlazio historikoetatik eta lekuan lekuko



endemikoetatik (nazioen, talde etnikoen, erlijiosoen eta abarren arteko menderatze-erlazioak, esaterako). Gaur egun, erlazio horiek forma burges modernoa hartu dute kapitalismoarekin eta estatu burges berriekin bat eginda.

Zapalkuntza-forma horiek, modu konplexuan, burgesiaren boterea indartzeko balio dute, eta hainbat eratan egiten dute hori: gizarte-sektoreen arteko kultur menderakuntza-egitura bat sortzen dute, estatu burgesen nazioarteko ordenari eusten diona; tarteko gizarte-kuadroek (senar autoritarioa, bortxatzailea, arrazista, kolonoa, nazio zapaltzaileko nazionalista eta abar) gauzatzen duten diziplinamenduaren bidez, egitura sozial burgesa indartzen dute proletalgoaren baitan, koadro horiek ordena burges sexualaren, familiarraren, nazionalaren, arrazialaren eta abarren transmisio-uhala gisa jokatzen baitute; sektore proletario zapalduak politikoki debalutzen dituzte (eta, are, mendekotasunean hezten ere) eta, ondorioz, proletalgoaren indar politikoak murrizten dituzte; lan esparruan debalutatutako proletariotza nazionalaren, arrazialaren eta genero aldetik zapalduaren gaineko espilotazio-tasak handitzen laguntzen dute; esklabismoan eta kolektibo proletarioen aurkako egiturazko indarkerian oinarritutako produktu- eta zerbitzu-merkatuak egituratzen dituzte (prostituzioa, haurdunaldi subrogatua edo haurren esklabotza eta erdi-esklabotza eremu periferikoetan); proletarioen arteko zatiketak eta egiturazko indarkeria sortzen dituzte, gure klasea atomizatzen eta desegonkortzen eta komunitate proletarioak indarkeria bidez autosuntsitzera bultzatzen dituzte; eta, oroz gain, klase kontzientzia unitarioa desartikulatzen dute, klasea ezabatzen eta identitate politiko artifizial eta interklasistetan zatikatzen dute eta, hala, borroka horiek erreforma antzuarri eta programa burgesari lortzen dizkiete, eta zapalkuntzak erreproduzitzen dituen egungo erro historikoa (alegia, klase-gizartea eta ekoizpen burgesa, zeinei oraindik ere zapalkuntza horiek funtzionalak zaizkien) ikusmen-eremutik ezabatzen dute.

Horiek horrela, beharrezkoa da klase-borroka botere burgesaren forma politiko-kultural espezifiko horietara (zapalkuntza modalitate horietara) guztietara hedatzea. Botere burgesa botere konplexua da eta, klase-dominazio ekonomikoan eta desjabetze-dinamikan oinarritzen bada ere, bere agertzeko modu

historiko konkretuan askotariko osagarriak ditu. Besteak beste: nazio batzuen zapalkuntza-moduen eta egiturazko indarkeriaren existentzia politiko eta kulturala, emakume langilearen aurkako indarkeria eta menderakuntza, sexu-aniztasunarekiko mespretxua, arrazakeria eta proletario migratzaileekiko gutxiespena, periferiako jatorrizko herrien gaineko kolonialismoa, bai eta jazarpen erlijiosoa ere, kapitalari funtzionala zaion lekuetan.

Bere hedapenean, mugimendu sozialistak egiturazko zapalkuntzen kontrako borroka-prozesuak estrategia sozialistarekin bateratzeko gai diren antolakundeak artikulatu behar ditu. Bi helburu nagusirekin egin behar du hori.

Lehenik eta behin, identitate interklasistak desegiteko. Horretarako, kolektibo zapalduak erreformaren programa burgesarekin lotzen dituen kontzientzia faltsua apurtu beharra dago, eta proletalgo iraultzailearen kontzientzia bateratu sozialista sortu politikoki eta kulturalki zapalduta dauden proletalgo internazionalaren sektore guztietan (emakume proletarioa, migratzaileen komunitateak, LGTBI kolektiboak, zapalduetako nazioetako kolektiboak eta abar). Era berean, mugimendu sozialistak indarkeria-eta zapalkuntza-forma guztien kontrako heziketa bermatu behar du bere barruan. Komunismoa zapalkuntza-forma orotatik askapena da proletalgoarentzat, eta alderdiak maxima horren errealizazio konkretua izan behar du.

Ildo horretan, nahitaezkoa da teoria komunista eta gizarte-analisi marxista garatzea dominazio-osotasuna kontuan hartuta, zapalkuntza-forma eta gatazka bakoitza marxismotik azaldu ahal izateko. Beste modu batera esanda, feminismoaren, nazionalismoaren eta abarren aurrean, zapalkuntza forma bakoitzari buruzko ikuspuntu sozialista garatu behar dugu, eta borroka-fronte bakoitza azaldu behar dugu burgesiaren alderdi osoaren aurkako proletalgo iraultzaile bateratuaren klase-borroka gisa. Terminologia feministaren edo nazionalistaren pean agertzen diren zenbait planteamendu misto eztabaidaren bidez eta forma zentzuzkoan findu behar dira, feminismoaren, antiarrazismoaren, antifaxismoaren eta nazio-askapeneko borroken zenbait destakamentu sozialismoarekin bat egiteko aukera galdu gabe. Edozein kasutan, programa feministari, nazionalistari eta abarri, finean, programa interklasistari eta politika erreformistei, fronte guztietan aurre egiteari uko egin gabe.



Bigarrenik, zapalkuntza-formen kontrako fronte-antolakundeek, proletalgoaren sektore zapalduak eta mugimendu sozialista bateratzeaz gain, taktika eraginkor bat garatu behar dute zapalkuntza-forma horiek betetzen duten funtzio espezifiko progresiboki blokeatzeko. Hori, klase-borroka politikoaren eta estrategia sozialistaren bidez garatu behar dute, zapalkuntza-modu zehatz bakoitza betetzen ari den funtzio-aniztasuna kontuan hartuta.

Antolakunde horiek guztiak aldi baterakoak direla ulertu behar da, eta mugimendu sozialistaren fasearekin batera agortzen direla, non bateratze- eta hegemonizazio-taktika kulturala oraindik garatzen ari baita. Behin alderdi komunista berrosatuta, frontekako taktika horiek guztiak alderdiak berak garatu behar ditu.

Eranskinak

1. ERANSKINA. Taktika kulturala: bateratzea eta hegemonizazioa

Mugimendu sozialistaren faseko (alegia, prozesu sozialistaren lehen faseko) kultur taktika berriak bi helburu nagusi ditu: lehenari, bateratze-taktika esaten diogu; bigarrenari, komunismoaren hegemonizazio-taktika proletalgo berriarengan. Halaber, helburu horiek bi zati osagarri dira fase-helburu estrategikoarenak: proletalgoaren independentzia politikoa berrosatzearenak.

Eraikuntza organizatiboaren prozesua da bateratze-taktikaren funtsa, destakamentuen fusio bidez eta mugimendu-antolakunde modu bateratuan hedatuz gauzatzen dena; eta egitura militante zabala du, eszizioetatik eta lurraldeka sakabanatutako destakamentu isolatuetatik datorrena. Zentzu horretan, bateratze-taktikaren muinean honakoak daude: batetik, militante-sare zentralizatu handi bat hedatu eta bateratzeko beharrezkoak diren zeregin organizatiboak (teoria iraultzailea eraikitzea, eguneratzea eta koiunturan aplikatzea, propaganda, agitazioa, borroka-eszenatokiak aukeratzea eta borroka-prozesuak gauzatzea) eta, bestetik, taktika orokorra bideratzeko modua.

Berebiziko garrantzia du, horren haritik, belaunaldien arteko haustura politikoa ziurtatzeak, gazteria proletarioa eskala handian

politizatuko duena eta horien zati handi bat alderdian sartzea eragingo duena. Helburu hori betetzeko, bateratze-taktika kulturalerako edo alderdi komunistaren eraikuntza organizatibo zentralizaturako, alegia, bi elementu hauek bete behar dira:

1. Eztabaida estrategiko arrazionalaren zentraltasuna, destakamentu eta antolakundeak bateratzeko proposamen eta diskurtso egokien frogapen logiko eta praktikoa oinarritua.

Hau da, komunista zintzo guztiek, beren destakamentu eta antolakundeetatik, bateratze arrazionalari men egin behar diote, besteek zuzen egina aitortu behar dute, eta pixkanaka-pixkanaka sigla zahar amortizatuak, zatikatuak eta elkarren aurka jarriak desegin behar dituzte, dagoeneko ez baitira baliagarriak alderdi komunista eguneratua berrosatu nahi duen belaunaldi berriarentzat. Horrek ez du inola ere esan nahi sigla horien atzean ez dagoenik prozesuan txerta litekeen elementu egokirik. Dena den, ezin da inondik inora ere onartu nazionarteko mugimendu komunistan azken mende erdian nagusi izan den destakamentuen arteko eztabaida korporatibo eta irrazionala. Destakamentu horietako bat bera ere ez da boltxebismoaren kontzeptuaren arabera alderdi komunista, ezta hurrik eman ere.

Nolanahi ere, mugimendu sozialistaren erreferentziazko antolakunde berriek hautsi egin behar dute marxismo-leninismo garaikidearen eztabaida dogmatiko, irrazional eta korporatiboaren kultura, eta alderdia bateratzeko eztabaida arrazionalaren oinarri berria jarri behar dute, boltxebismo klasikoarekin bat datorrena. Bada, antolakunde horiek zintzotasun- eta arrazionaltasun-eredu izan behar dute posizioen arteko eztabaidan. Halako ezaugarriak dituen eztabaidaren ondorio logikoa, jakina, modu arrazionallean jarduten duten siglen bat-egite prozesua da, eta modu korporatiboan jarduten dutenen pisu-galtzea edo desegitea. Arrazionalismo politikoaren suspertzean oinarrituta soilik osa daiteke, gaur egun, behin-behinean, desagertuta dauden antolakunde iraultzaile handientzako batasun kontzeptuala.

Eztabaida estrategikoak, behar bezala gauzatuz gero eta mugimendu-antolakundearen hazkunde proportzionalaren grabitate-zentroa baldin bada, militantzia-oinarri nahikoa eman



dezake kultur borroka ideologikoaren prozesua bermez eta itxaropenez abiarazteko eta, hartara, gazte proletario despolitizatuak mugimendu sozialistaren erreferentziatzko antolakunde berrietan masan sar daitezzen. Esan nahi baita, destakamentu politizatuei zuzendutako prozesu-elementua abian den aldi berean, beste elementu edo prozesu bat ere jazo behar da: sare militante zabal bat alderdian bateratzearen aldeko kultur borroka.

1. Bigarren elementuaren gakoak gazte proletarioei oro har eta gazte migratzaileei bereziki zuzendutako borroka ideologiko-kultural egokia egitea da, zirkulu militanteetatik eta egungo mugimendu komunista zatikatutik haratago. Kultur borroka horrek proportzionalki uztartu behar ditu propaganda (programaren eta teoria iraultzailearen azalpena egungo arazo konkretuei egokituta, betiere interes handiagoa adierazten duten zirkuluetan) eta agitazio-dosi handiak (adierazpen-modu desberdinetan dibertsifikatuta, gazte-sektore guztien interesa eta arreta erakartzeko eta gazte langileen masa handiak militantzia berriari atxikitzeke eta bertan parte hartzea lortzeko).

Horren haritik, haustura politikoak, hasiera batean, gazte-antolakunde bateratu handiak eraikitzea du ardatz nagusi, sozialdemokraziarekiko haustura iraultzailearen erreferente orokor izango direnak eta sare militantea hedatzeko antolaketa-elementu gisa balioko dutenak. Horrek ez du esan nahi ez denik, hasieratik beretik, kultur borrokako lanik egin behar beste sektore proletario batzuekin (hala nola langile prekarioekin, langabetuekin, migratzaileekin, emakume proletarioekin eta abarrekin), baizik eta sektore horietako bakoitzak duela belaunaldi-haustura bere baitan, eta horietan guztietan, egitura militantea hedatzeari dagokionez, lehentasuna eman behar zaiela gazteei zuzendutako propagandari eta agitazioari.

Honaino, labur, batasunerako taktikaren ekintza lerro orokorrak. Destakamentuen batasuna eta kultura militantearen zabalpena proletalgoaren gazte-sektore guztietan, belaunaldi-haustura politikoa bermatzeko. Haustura politiko horrek metabolizatu behar du haustura sozialaren errealitate objektiboa; hain zuzen, ordena sozial kapitalistan debalutua eta eskubiderik zein etorkizunik gabea den proletariotza berriarena.

Bigarren taktika, hegemonizazioa deritzoguna, zeregin multzo bat da, proletalgoaren eta bere egunerkoasuneko kulturaren hegemoniko bihurtuko dituen komunismoa, mundu-ikuskerak sozialista eta kontzientzia sozialista. Izaera zabalagoko taktika da, proletalgo osoari zuzendua, sektore proletario guztiei. Helburua, ehun militantea sortzea baino, forma kultural politiko bat orokortzea da; horrela, aldaketa historikorako erreferente bihurtu daitezzen iraultza sozialista, ortzimuga gisa, eta alderdi komunista, hura gauzatzen duen agente gisa. Aldi berean, kontzientzia sozialista alderdia bera baino garrantzitsuagoa da, edo, bestela esanda, une batetik aurrera, alderdiaren funtzio hezitzailea erabakigarria da zibilizazio-ordena hobe bat existitu dadin.

Borroka kulturala, beraz, bere zentzu hertsian, horixe da. Ez da militante-sare bat sortzen duen borroka, baizik eta gizarte osoa eraldatzen duena eta iraultza sozialistarako beharrezkoak diren giza oinarriak ezartzen dituen. Horregatik da hain garrantzitsua hegemonia lortzeko borroka kulturala; alderdiak legitimazio handiagoa izan dezan, agente historiko politiko gisa, langile-klasearen baitan. Hori ezinbestekoa da alderdia, klasearen interes errealarekin bat eginda, klase-ofentsibaren eta eraldaketaren agente historiko bilakatu dadin.

Bitartekoak berberak dira, baina oraingoan klase osoa politikoki heztera bideratuak: propaganda; agitazioa; borrokak era zuzenean aukeratu eta gauzatzea; koiunturaren gaineko diskurtsoaren erabilera egokia, estrategia zabaldu eta borroka bakoitza prozesu beraren une gisa azal dezan eta abar.

Hegemonia lortu nahi duen taktika kulturalarentzat, etangabeko zeregin hauek garrantzi berezia dute:

- Publikoki aurre egitea kapitalaren alderdiari, eta bereziki bere ezkerreko hegal sozialdemokratari, proletalgoari eragiten dion problematika konkretu bakoitzean. Bere diskurtso ekonomizista eta oportunistaren agerian utzi behar da proletalgoaren aurrean, horretarako eskura diren bitarteko guztiak erabilita. Mugimendu sozialistak ezin du inoiz saihestu sozialdemokraziarekiko konfrontazio dialektikoa eta kulturala, agenda politikoko auzi garrantzitsu bakoitzean.



- Bigarren, borroken eraginkortasuna, etsaiari aurre egiteko eszenatokiak ongi aukeratzea; hau da, modu proportzionalan eszenatokiaren garrantziarekiko eta gure indar taktikoekiko. Eraginkortasunak eta garaipen partzialek laguntzen dute burgesiaren krisi-testuinguruko ofentsibari aurre egiteko posibilitatea proletalgoaren beraren indarrean dagoelako ideia sortzen. Eta, batez ere, posibilitate hori antolakunde iraultzaile handiaren potentzialitatean dagoelako ideia sortzen laguntzen dute, eta ez erreformaren antoalkundeetan. Horrela, iraultza sozialista da seinalatzen den norabidea.
- Hirugarren, kohesioa, propagandak eta koiunturaren gaineko diskurtsoak marko estrategikoarekin dutena. Horrekin batera, mezuaren argitasuna agitazioa egiterakoan, proletalgoaren sektore guztientzat ulerterreza izan dadin, ez soilik bere abangoardia intelektualarentzat.
- Laugarren, antolakunde-mugimendua indar eraginkorra izan dadila sexu-indarkeria, genero-indarkeria, indarkeria etniko zein arraziala eta bestelako indarkeriak ezabatzeko komunitate eta sektore proletarioetan. Klasearen baitan, hezten eta normatibitate sozialista sortzen joan dadila, indar organizatibo propioz; gaur egun burgesia baita, bere indar polizialez, onargarria zer den eta zer ez den inposatzen duena. Normatibitateagatiko bataila funtsezkoa da patroikulturalak eraldatzeko. Antolakunde iraultzaile handiaren faltak proletalgoaren lunpenizazioa eta bere komunitateak etikoki hustea eragin du.

Horiek eta beste auzi batzuk dira, bere zentzu hertsian, borroka kulturala osatzen dutenak. Borroka kultural orri "komunismoaren hegemonizazioa proletalgo berriaren baitan" deritzogu.

2. ERANSKINA. Antolakuntza-maila territoriala: estatu- eta nazio-aztiak gaur egun

Eraginkortasunari begira, gutxieneko apustua da bloke geostrategiko bakoitzeko ofentsiba-alderdi handi eta bateratu bat sortzea. Estrategia hori garatzeko burgesiari aurre egin beharra dago bere ezaugarri politikoak eta militarrik,

bai eta ekoizpenaren eta distribuzio sozialaren antolaketa ezaugarriak ere biltzen dituen mailan. Aginte- eta gobernu-ezaugarri horiek, besteak beste, estatuaren ezaugarri klasikoak dira, alde batetik, eta multinazional handien ezaugarriak, bestetik. Estatuak eta multinazional handiek antolatzen eta partzialki planifikatzen dituzte interbloke finantzarioak, beren irabazi-tasak handitzeko.

Bloke supraestatal edo nazioarteko ordena burges berriko zibilizazio-bloke horien botere-organak honakoak dira, besteak beste: bai finantza-instituzio handiak, inbertsio-funtsak eta banku zentralak, bai oligarkien erabakimenerako egitura ez-publikoak, eta baita forma politikoagoak ere, Europar Batasuna eta bere instituzioak, gure kasuan. Lurrealde-eskala supraestatala ezinbestekoa da kapitalen arteko kompetentziaren gaur egungo mundializazio-mailagatik eta finantza- eta teknologia-kompetentziarako kapitalaren kontzentrazio areagotuzatik, baita burgesia nazionalen eskala handiko beharrezko batasunagatik ere, nork bere influentzia kolonialeko eremuetan energia-baliabideak eta lehengaiak arpilatzeo eta segurtatzeko. Horretaz guztiaz gain, kontuan izan behar da estatu-egitura nazionalak erabat finantzarizatuak, zorpetuak eta instituzio supraestatalen agindupean daudela.

Aurreko mende hasieran, inperio handien aroan, nazio-estatuak ziren politika handiak eta kompetentzia handiak, gaur egun, eskala supraestatalean antolatuta daude. Europar Batasuna, Ameriketako Estatu Batuak, Txinako Herri Errepublikak eta Errusiako Federazioa dira, ildo horretatik, nolabaiteko gaitasun inperialista daukaten agente nagusiak, bakoitzak bere batasun- eta garapen-maila dauka eta garrantzi desberdina mundu-mailan. Hala ere, munduko beste gune geostrategiko batzuetan ere badira norabide berean doazen estatuak arteko konfluentzia- eta batasun-dinamikak, Latinoamerikan edo Asiako beste eremu batzuetan, esaterako.

Hori dela-eta, aurreko ziklo iraultzaileetan ofentsiba-alderdi proletarioak nazio-estatuak eskalan antolatu izan baziren, gaur egun nahitaez eskala supraestatalean antolatu beharra dago ofentsiba-alderdi bateratu gisa. Gizarte burgesa erabat garatuta dagoen bloke horietan, egun ez dago nazio-estatu mailako iraultza politikoetarako inolako aukerarik. Ofentsiba hasieratik garaitua izan ez dadin, gutxienez



makroestatu handiekiko proportzioan garatu behar dira alderdi komunisten antolakuntza eta estrategia. Erabat baztertu beharra dago, gaur egun inoiz baino gehiago, herrialde bakarreko iraultzaren ideia, eta, are, baita “herrialde bakoitzeko alderdi komunista bat” ideia ere.

Hala eta guztiz ere, alderdi komunistek kontuan hartu behar dute kontzientzia faltsu burges dominantea, zeinak makroestatuetakoa dinamika politiko eta ekonomiko oro azaltzen baitu politika nazionalaren hartzen duten itxuraren arabera; hala berresten du politika nazionalaren fikzioa. Ondorioz, beharrezkoa da, halaber, eskala supraestataleko alderdi komunista handiek kontseilu nazionalak izatea, gai direnak nazio-lurralde bakoitzeko erreferente politiko izateko eta nazio-mailako eztabaida politikoan parte hartzeko. Kontseilu nazionalak une oro agerian utzi behar dituzte beren nazio-mailako burgesiek eta profesional mertzenarioen alderdi politikoek hartutako erabakiek daukaten klase-intentzionalitatea eta jatorri internazionala.

Azkenik nazionalki menderatutako (hau da, sezesio nazionalerako autodeterminazio-eskubidea historikoki indarrez galarazi izan zaien) askotariko nazio-komunitate proletarioak dauden estatuetan, honakoak dira alderdi komunistaren eginkizunak: batetik, nazio guztien autodeterminazio-eskubidea defendatu behar du, eta, bestetik baloratu behar du nazio zapalduko kontseilu nazionalaren izenean jardutearen al ez jardutearen potentzialitatea; betiere proletalgo nazionalak nazio-ikuspegi honekiko daukan atxikimendu-mailaren arabera eta, batik bat, proletalgo potentzialki mobilizagarriari erreparatuta. Auzi horrek, antolakuntza-mailaren ikuspegitik, badu garrantzia, baina bere neurrian; izan ere, estrategia, funtsean, makroestatu handien eskalan garatu behar da eta, ondoren, administrazio burgeseko eskalei ezinbestean jarraitu. Beraz, modu batean edo bestean, proletalgoa ikuspegi nazionalaren kontra eta internazionalismo proletarioaren alde etengabe hezteko eginbeharra dauka kontseilu nazionalak; proletalgoa, politikoki, ezin baitaiteke inola ere klase nazional bat izan. Eginbehar hori naziotasun bateko ala besteko kontseilu sozialistak egitea gutxienezkoa da eta, finean, arrazoi oso koiunturalen arabera.

Autodeterminazio-eskubideari buruzko doktrina leninista aldatu egin behar da, eskubide formal burges erabat negatiboa

izateko programa sozialistari zuzenean lotutako birformulazio batera; hau da, komuna-estatu supraestatalaren programara. Programa horretan, nazio menderatu orok izango du bere autodeterminazio-eskubidea ziurtatuta eta tokiko kontseilu nazional bakoitzak administratuko ditu bere kultura, hizkuntza, historia eta bere eskala-ekonomia, zeina sozialismoan ere egongo baita. Dena dela, autodeterminazio-eskubidea zuzenean aldarrikatu behar da estatu gabeko nazioen estatu-botere proletarioaren formako autodeterminazio gisa; hau da, estatu sozialista gisa. Hala, proletalgoaren nazio-borondatea burgesia nazionalaren interesetatik bereizi behar da eta prozesu sozialistarekin eta maila internazionalerako iraultza proletarioaren behararekin bateratu.

3. ERANSKINA. Prozesu sozialista kontzeptu historiko gisa. Ezaugarritze laburra.

Prozesu sozialista periodizazio bat adierazteko forma da, hain zuzen ere, hirugarren ziklo iraultzaile potentzialarena (klase-borroka modernoaren bukaera), iraultza proletarioen aurreko zikloek entseatutako forma historikoa burutuko duena. Ziklo horien eboluzioaren bi kasu paradigmaticoak Parisko Komuna eta Iraultza Sobietarra dira.

Eskala internazionalerako hirugarren ziklo iraultzailearen oinarrian formazio sozial burgesaren eta bere ondorio sozialen krisi historikoa dago. Prozesua, proletalgo berriaren eskutik, erreformaren alderdiarekiko beharrezko hausturarekin hasten da, masiboa dena proletarizazioaren eta krisiaren ondorioz, bereziki belaunaldi proletario berrietan. Nolanahi ere, hasierako forma destakamentu isolatuena eta herrialde bakoitzeko erreformaren alderdiaren eszizioena da, batez ere proletalgo politizatuaren gazte-sektoreek osatua.

Berehala, destakamentu horiek teoria iraultzailean teorikoki trebatzeko zeregin saihestezina dute, aurreko ziklo iraultzaileak ezagutzeko, marxismoa estudiatu eta beren intuizio politikoei forma emateko, mugimendu iraultzailearen ikerketa sistematikotik jasotako kontzientziasozialistaren bitartez. Destakamentu gazte horien zuzendaritza politikoa, beraz, erabat erabakigarria da, hura gabe borroka eta hazkunde organizatiborako dinamika aldentuta geldituko baita proletalgoaren independentzia den helburu estrategikotik, alderdi komunistatik



eta iraultza sozial internazionaletik.

Prozesu horretan, mugimendu sozialistaz hitz egin dezakegu lurraldeka (batez ere aurreko testuinguru politikotik jasotako eskala nazionalan) antolakunde zentralizatuak sortzen hasten direnean, gutxieneko gaitasun taktikoa dutenak. Mugimendu sozialista adierazpen organizatibo bat da, oinarriak ezarriko dituen borroka kulturalaren prozesuaren arrakastarako. Borroka kultural horrek lortu behar du, alde batetik, eztabaida estrategikoaren bidez, alderdi-forman bateratzea erreformismoarekin estrategikoki hautsi duten lurraldekako destakamentuak; eta, bestetik, proletalgo berriaren baitan kontzeintzia sozialista hegemoniko egitea, propagandaren, agitazioaren, borroka taktikoaren eta dibertsifikazio eta hedapen organizatiboaren bitartez.

Mugimendu sozialistak lehen fase estrategikoa agortuko du bateratze organizatiboa eta komunismoaren hegemonizazio kulturala proletalgo berriaren masetan gauzatzean; horrela eratuko da alderdi komunista handi berrien nazioarteko sistema berria, bloke inperialista eta geostrategiko handien eskalan antolatua. Alderdi komunistak, estrategikoki bateratuak internazional iraultzaile berri baten baitan.

Mugimendu sozialista, beraz, prozesuaren baitako lehen formazio organizatibo zentralizatu gisa ulertzen dugu, eskala nazionalan edo lurraldeka zentralizatuak. Prozesu horretan, estrategiak gaurkotua eta garatua izan behar du, teorikoki zein politikoki, koiuntura historikoaren forma bakoitzerako; eta borroka kulturala era arrakastatsuan gauzatu behar da. Fasearen helburu estrategiko nagusia alderdi komunistaren berrosaketa edo birkonfigurazioa da kontzeptu gisa, modelo berri batean gaurkotua, ziklo iraultzailea berrabiarazteko gai izango dena egungo eskala geostrategikoan. Alderdi komunistak, edo horien internazional bateratuak, botere berriaren sede zentralizatu adierazten du. Hirugarren fasean, komuna-estatu edo estatu sozialistarenean, boterearen kontzepzio dialektikoa da komuna-estatu alderdi komunistaren (edo alderdi komunisten internazionalaren) garapen dialektiko gisa ulertzea, eta ez alderdiaz kanpoko elementu gisa.

Korrante eta ikuspuntu politikoen dibertsitatea,

eztabaida estrategiko deritzoguna, alderdi-estatuaren baitan ebatziko da, burgesiak egiten duen modu berean: estatu bakarrarekin eta alderdi-sistema batekin, izatez estatu-alderdi bakar gisa bateratuta dagoena, bere barne-korronteekin. Aldea da burgesiaren alderdi bakar horrek klase jabetuen interesak ordezkatzeko dituela eta alderdi komunista eta komuna-estatu, aldiz, askatasun politikoaren unibertsaltasunaren eta emantzipatutako klase bakarraren unibertsaltasunaren gainean eraikitzen direla.

Prozesuaren ulerkera dialektikoa argituta eta bigarren fasera edo alderdi-fasera itzuliz, fase hori ziklo iraultzaile berri bat abiaraztean datza. Alegia, prozesu sozialista azkartu eta berriz ere prozesu iraultzaile bihurtzen da, boterea kentzeko oligarkia finantzarioei eta estatu aparatuetan tronuratuta dauden burgesia nazionalari. Alderdiaren fase iraultzailearen bi helburu nagusiak hauek dira: alde batetik, boterea hartzea eta burgesiaren estatuaren egitura guztiak suntsitzea, eta batez ere oligarkiaren gobernurako aparatua supraestatala; eta, bestetik, ekoizpen-aparatuaren teknika aurreratu guztiaren desjabetzea eta sozializazioa, langile-klaseko goi-geruza teknikoak prozesu sozialistara batzearekin batera. Horrela, estatuaren eskuduntzak eta teknikarik aurreratuenek bat egingo dute zibilizazio sozialistaren plataformarekin, eredu berriko alderdi komunisten internazionalarekin eta lurralde- eta ekoizpen-kontseiluen demokrazia zentralizatuarekin.

Botere-hartzea eta proletalgo iraultzailearen komuna-estatu internazionalaren eraikuntza, bere lurraldekako banaketarekin, eta komuna-estatutik abiatuta horrek hartuko duen forma politikoa ez dira dokumentu honen gaiak. Alderdien lana izango da, fase horretara heltzean, estatu iraultzailearen teoria marxista eguneratzea, klaserik gabeko zibilizazio komunista berrirako eraikuntza- eta trantsizio-prozesuaren azken fase gisa.

Gure zeregina, gaur egun, prozesu sozialista berrabiaraztea da. Masa-alderdi komunista diziplinatu eta eraginkorren sistema politiko internazional proletario boteretsu berria artikulatzea, mundu-mailako iraultza sozialistaren helburuak eta proletalgoaren erabateko emantzipazioak gidatuko dutena.





EUSKAL
HERRIKO
KONTSEILU
SOZIALISTA